

PROBA ESPEZIFIKOA

201&ko PROBA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

**HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA**

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Erantzun zortzi ariketa hauetako lauri.
(Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du).

1. Esan ezazu baieztapen hauetako zein diren egiazkoak, eta azaldu zergatik:

Sofistek:

- a) Natura ikertzen dute.
- b) Uste dute egia erlatiboa dela.
- c) Uste dute erretorika oinarritzko jakintza bat dela.
- d) Poliseko justiziaz arduratzen dira.

2. Aristotelesek lau kausa bereizten zituen fenomenoetan: efizientea, materiala, formala eta xedezkoa. Adieraz itzazu haietako bakoitza ondoko adibidean, eta eman bakoitzaren azalpen labur bat:

Fidias eskultore handia sirena baten eskultura zizelkatzen edo lantzen ari da marmolezko bloke batean, Partenoia apaintzeko.

3. Aipa itzazu kristautasunak kultura grekolatindarrari erantsi zizkion oinarritzko 4 ezaugarri, eta, batez ere, azter itzazu desadostasunik handiena eragin zuten puntuak.
4. Zerrendatu itzazu Ockhamek kritikaturako filosofia eskolastikoaren oinarritzko 4 alderdi.
5. Zerrendatu itzazu, eta azaldu, *Arrazoimen puruaren kritikaren* eta *Arrazoimen praktikoaren kritikaren* artean dauden oinarritzko desberdintasunak.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS*

MAYO 2012

***HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA***

6. Adieraz ezazu, pentsamendu marxistaren ikuspegitik, baieztapen hauetako zein diren egiazkoak eta zergatik:

- a) Iraultzak gainegitura aldatzera bideratuta egon behar du.
- b) Egitura ekonomikoa gizartearen oinarri erreal da.
- c) Azpiegiturak gainegitura zehazten edo baldintzatzen du.

7. "Dioniso eta Apolo aurrez aurre": azaldu ezazu zer adierazten duen aurrez aurreko horrek Nietzscheren filosofian.

8. Azaldu ezazu zer adierazten duten Sartreren filosofiaren adierazpen hauek:

- a) "Gizakia alferrikako pasio bat da".
- b) "Askatasunera kondenatuta gaude".



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

**HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA**

**EBAZPENA: FILOSOFIAREN HISTORIA
(2012ko maiatza)**

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Erantzun zortzi ariketa hauetako lauri.
(Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du).

1. Esan ezazu baieztapen hauetako zein diren egiazkoak, eta azaldu zergatik:

Sofistek:

- a) Natura ikertzen dute.
- b) Uste dute egia erlatiboa dela.
- c) Uste dute erretorika oinarritzko jakintza bat dela.
- d) Poliseko justiziaz arduratzen dira.

Erantzuna:

- a) **Faltsua**
- b) **Egiazkoa:** uste dute egia erlatiboa dela, dena ikuspuntuaren arabera dela. Protagorasek esan zuen moduan: *“Gizakia da gauza guztien neurria”*. Beraz, egia absolutua ez da existitzen; norberaren egia baino ez da existitzen. Ez dago egiarik ez legerik balio unibertsala duenik.
- c) **Egiazkoa:** egia erlatiboa denez, gure argudioak beste pertsona batzuenen aurrean defendatzeko trebetasunak du garrantzia. Oratoriaren eta erretorikaren maisuak ziren. Beren dizipuluak *poliseko* bizitza aktiborako hezten eta trebatzen zituzten. Hizkuntza menderatzea: trebetasun erretoriko eta politikoa, aukera ematen ziena argudiatzeko, sinetsarazteko, gai ororen bi alderdiak erakusteko.
- d) **Faltsua**

2. Aristotelesek lau kausa bereizten zituen fenomenoetan: efizientea, materiala, formala eta xedezkoa. Adieraz itzazu haietako bakoitza ondoko adibidean, eta eman bakoitzaren azalpen labur bat:

Fidias eskultore handia sirena baten eskultura zizelkatzen edo lantzen ari da marmolezko bloke batean, Partenoia apaintzeko.

Erantzuna:



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

**HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA**

- a) **Fidias kausa efizientea** litzateke, bururatzaila, eskultura lantzen duen egilea, artista edo obraren ekoizlea.
- b) **Marmolezko blokea: kausa materiala** litzateke edo gauzen materia: marmola, zura, harria, brontzea...
- c) **Sirena: kausa formala** da, estatuaren forma; kasu honetan, sirena-formakoa. Fidias lantzen ari den ideia edo eredu da. Gauza bat bere formak definitzen du.
- d) **Partenoia apaintzea: kausa xedezkoa** litzateke. Helburua da; alegia, Fidiasek bere ekintzaren bidez iritsi nahi duen helmuga, eskultura lantzearen xedea edo zergatia.

3. Aipa itzazu kristautasunak kultura grekolatindarrari erantsi zizkion oinarrizko ezaugarriak, eta, batez ere, azter itzazu desadostasunik handiena eragin zuten puntuak.

Erantzuna:

Kristautasunak berrikuntza hauek ekarri zituen, batez ere:

- a) **Kristautasunak historiarekin lotzen du Jainkoa:** Jainkoa arduratia da, eta herri jakin bat eta garai jakin bat hautatzen ditu.
- b) **Kristautasuna eta egia:** Kristautasunak egiaren jabe bakar gisa aurkezten zuen bere burua: "*ni naiz egia*".
- c) **Monoteismo kristauak** argi eta garbi egin zuen talka politeismo grekolatindarrekin. Jainko bakarra dagoenez, ahalguztiduna da.
- d) **Kreazionismoa:** Jainkoak ezerezetik sortzen ditu gauzak, eta abar.

Idea horien berritasunak eta erradikaltasunak talka egin zuten sineste grekolatindarrekin, eta zenbait jarrera sortu ziren: a) **filosofia errefusatzea** kristautasunaren aurrean: "*sinetsi egiten dut absurdua delako*"; eta b) **filosofiaren eta kristautasunaren arteko lankidetzaren** arteko lankidetzaren: "*sinets ezazu, ulertzeko; uler ezazu, sinesteko*".

4. Zerrendatu itzazu Ockhamek kritikatuak filosofia eskolastikoaren oinarrizko alderdiak.

Erantzuna:

Bere jarrera nominalistatik, filosofia eskolastikoaren behargabeko kontzeptu abstraktu hauek kritikatu zituen:

- a) Individuazio-printzipioaren kritika



- b) Esentzia-existentzia bereizketaren kritika.
- c) Jainkoaren existentzia frogatzeko proben kritika.
- d) Arrazoimenaren eta fedearen arteko haustura eta bereizketa: ez dira frogagarriak ez arimaren existentzia ez Jainkoaren existentzia, frogapen ororen oinarria esperientzia delako.

5. Zerrendatu itzazu, eta azaldu, Arrazoimen puruaren kritikaren eta Arrazoimen praktikoaren kritikaren artean dauden oinarrizko desberdintasunak.

Erantzuna:

Taula honetan, bi kritiken arteko oinarrizko desberdintasunak ageri dira:

ARRAZOIMEN PURUAREN KRITIKA	ARRAZOIMEN PRAKTIKOAREN KRITIKA
Galdera honi erantzuten dio: Zer jakin dezaket?	Galdera honi erantzuten dio: Zer egin behar dut?
Izateaz dihardu	Izan beharraz dihardu
Judizioak formulatzen ditu	Inperatiboak formulatzen ditu
Zientziaren posibilitateaz dihardu	Etikaren posibilitateaz dihardu

6. Adieraz ezazu, pentsamendu marxistaren ikuspegitik, baieztapen hauetako zein diren egiazkoak eta zergatik:

- a) Iraultzak superegitura aldatzera bideratuta egon behar du.
- b) Egitura ekonomikoa gizartearen oinarri erreala da.
- c) Azpiegiturak gainegitura zehazten edo baldintzatzen du.

Erantzuna:

- a) **Faltsua:** Iraultzak superegitura aldatzera bideratuta egon behar du.
- b) **Egia:** Egitura ekonomikoa gizartearen oinarri erreala da. Interes materialek erabakitzen dituzte bizimoduak eta haren agerkerak (moralak, ohiturak, artea, kultura...).
- b) **Egia:** Azpiegiturak gainegitura zehazten edo baldintzatzen du. Aurreko baieztapenarekin bat, gainegitura (moralak, ohiturak, artea, kultura, politika...) produkzio moduaren mende dago (azpiegitura).

7. "Dioniso eta Apolo aurrez aurre": azaldu ezazu zer adierazten duen aurrez aurreko horrek Nietzscheren filosofian.

Erantzuna:

Dioniso: ardoaren eta orgiaren jainkoa, emankortasunarena eta osasunarena. Tragedia grekoan, biziaren balioen ordezkaria da; instintuaren eta pasioaren



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

**HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA**

indarraren irudia da, bizi-korrante sutsuarena. Gizaki dionisiakoa naturarekiko harmonia betean bizi da. Dioniso biziaren eta instintuaren baieztapena da. Zaratustra Dioniso antzaldatua besterik ez da. Tragedian, Dioniso musikaren eta dantzaren jainkoa da.

Apolo: Apolo jainkoak arrazoimenaren balioak ordezkatzeko ditu. Apolo argiaren jainkotasuna da, proportzio eta bidezko neurriarena, oreka eta baretasunarena. Gizaki apolotarrak errealitatea mozorrotu egin nahi du, desitxuratu, harengan arrazoimena baita nagusi. Apolo biziaren eta instintuaren ukazioa da. Sokrates eta Gurutziltzatua ere bide horretan daude. Tragedian, Apolo hitzaren jainkoa da.

8. Azaldu ezazu zer adierazten duten Sartreren filosofiaren adierazpen hauek:

- a) "Gizakia alferrikako pasio bat da".
- b) "Askatasunera kondenatuta gaude".

Erantzuna:

- a) "**Gizakia alferrikako pasio bat da**". Kontzientzia edo "bere baitarakoa" ez da ezer, hutsa da, beteko bada gainerako gauzak behar dituen izan nahia da. Kontzientziak izaera intentzionala du: objekturantz jotzen du. Kontzientziak gainerako gauzak bezalakoa izan nahi du, baina desira hori alferrikakoa da, porrotera kondenatua. Horregatik, gizakia alferrikako pasioa da, bete gabeko desira, amaitu gabeko proiektua...
- b) "**Askatasunera kondenatuta gaude**". Existentzia, batez ere, hautatzea da. Hautatzea askatasunaren ondorioa da; gizakia izaki errotik librea da. Sartrek dioen bezala, "**askatasunera kondenatuta, kateatuta, gaude**" eta ezin diogu utzi libre izateari. Askatasunaren bitartez, gure bizitza aukeratzeko dugu. Existentziak aukeratzera, zer izan nahi dugun erabakitzen, behartzen gaitu: "**... Hautatzeari uko egitea, ez hautatzea hautatzea da... (...) ...ez gara libre libre izateari uzteko**" (J.P. Sartre: *Izatea eta ezereza*).



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

**HISTORIA DE
LA FILOSOFÍA**

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	2.1, 2.2
2	3,6
3	4.2
4	5.6, 5.8
5	7.4, 7.5
6	8.5
7	9.3
8	10,2